

Drogen eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuen kontsumoari buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpaina

MENPEKOTASUNA ESKATU GABE ETORTZEN DA SPOILER ASKE IZATEA DA ZURE ISTORIO ONENA

Aurten ere, Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Iza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak drogen kontsumoari eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpaina abiatuko dugu. Kanpainaren helburu orokorra honakoa da: arrisku-kontsumoak eta jokabide-adikzioak eta horiek komunitatean dituzten ondorioak murriztea. Kartelaren helburua da drogen kontsumoari eta mundu digitalarekin eta zorizko jokoekin lotutako beste adikzio batzuei buruz gogoeta eginaraztea, zoritxarrez gazteen eskura baitaude.

Kanpaina hainbat zerbitzutan zabalduko da, eta herrietako informazio-paneletan, sare sozialetan eta Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Xulapaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko zein udaletako web orrialdeetan ere zabalduko da.

Horrez gain, txosnetan eta herrietako Gazteguneetan edo gazteen topaguneetan, nesken eta mutilen preserbatiboak emango ditugu, gazte guztiek doan eska dezaten, behar izanez gero; izan ere, babesik gabeko sexu-harremanak izatea droga-kontsumoarekin lotutako jokabide arriskutsua da.. Karpa bat egonen da, adostasunean, atseginean, gozamenean eta zaintzan oinarritutako harreman afektibo-sexualak sustatzeko helburuz, eta bertan prebentzio-materiala banatuko da (preserbatiboak, lubrifikatzaileak), eta zalantzak eta galdera zehatzak argitzeko aholkuak emanen dira.

Herrietako tabernetan kanpainaren kartela, ostalaritza-sektoreko jardunbide profesional egokien dekalogoak eta alkoholaren kontsumoari buruz gogoeta egiteko Osasun Publikoko Institutuak argitaratutako materiala banatuko dira. Kanpaina gazteen etxabeetara, elkarteetara eta txosnetara ere zabalduko da.

Aurten ere saio bat eskainiko da, jaien testuinguruan jarduera-protokoloak lantzeko, kontsumoetan arriskuak murrizteko eta eraso sexistak saihesteko, txosnetan barra borondatez egiten duten pertsonei zuzenduta.